

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### HERRITARREN SEGURTASUNAREN SAILA

#### **Ibilgailuen tratamendurako zentro baimendu batera eramatea eta Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren Ibilgailu Erregistroan baja eskatzea**

Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu bateratua onetsi zeneko urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 106.1 artikulua arabera, ibilgailu bat tratamendu-zentro baimendu batera eramatea agindu dezake Udalak, baldin eta:

bi hilabetetik gora egin badu Udalaren ibilgailu-biltegia, bide publikotik kendu zenetik, eta titularrak alegaziorik aurkeztu ez badu,

bi hilabetetik gora egin badu bide publikoan ibilgetuta, eta titularrak alegaziorik aurkeztu ez badu,

hilabetetik gora egin badu bide publikoan, eta bere bitarteko propioak baliatuz lekuz aldatzea ezinezko egiten duen hondamena erakusten badu, edo matrikula-plakak falta baditu.

Herritarren Segurtasuneko zinegotzi ordezkariak, eskumenak eskuordetzeko alkatearen 2019ko ekainaren 21eko dekretuak aitortzen dion aginpidea baliaturik, adierazten den ibilgailuak —aurreko egoera horietakoren batean daudenez gero— tratamendu-zentro baimendu batera eramatea ebatzi du 2022ko maiatzaren 15ean, eta Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren Ibilgailu Erregistroan horien baja eskatzea. Hala jakinarazten zaie interesdunei, dagozkion ondorioetarako.

Vitoria-Gasteizen, 2022ko maiatzaren 2an

*Herritarren Segurtasunaren Saileko zuzendari nagusia*  
**SUSANA ALFONSO ACEBO**

VI7006O  
4366CMN  
VI0809W  
5107DSW  
9879FCK  
VI1441Y  
3318FZY  
6437BGS  
0133FHM  
GI6025BM

6153DWG  
C6658BHH  
VI5912U  
2529FKW  
BI2521CU  
M2103ZD  
VI1547K  
3700DBT  
9595BWB  
VI01944R  
VI3277Y